# EUSKARA MERKATARITZARA

## EUSKARA, AUKERA PAREGABEA

### PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK KATALOGO BIDEZ



diru-laguntzak

itzulpenak

ikastaroak

materialak

aholkularitza

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

EUSKARA BIZI

getxo euskalduntzeko hitzarmena

EUSKO JAURLARITZA
KULTUR SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# ZERBITZU-GUTUNA

## PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK KATALOGO BIDEZ

**Esku artean duzun katalogoak hainbat produktu, zerbitzu eta diru-laguntza eskaintzen dizkizu. Eskaintza hau onuragarria izango zaizu zure establezimenduan euskara ere erabil dezazun. Euskara kalitate gehigarria delako, lana erraztu nahi dizugu.**




## ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko diru-laguntzak:

- Euskara hutsez: errotuluaren %50, gehienez 360 €.
- Euskaraz eta gaztelaniaz, beti ere euskarazko testuak lehentasuna badu: zenbatekoaren %30, gehienez 180 €.
- **OHARRA:** errotulua ipini baino lehen Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jartzea gomendatzen dizugu.

**Euskara Zerbitzua- Getxoko Udala**

**TEL. 94 466 00 10/11**
**e-mail. euskara.zerbitzua@getxo.net**

## ITZULPEN ZERBITZUA

**Urte osoan eta doan.gehi@getxo.net**

Edonolako idatzia edo testua prestatu behar baduzu (mezu komertzialak, bisita-txartelak, menuak…), hauxe duzu aukera. Zerbitzu honen bitartez, zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala, izango dituzu.

Itzuli edo zuzendu nahi duzun testua **gehi@getxo.net** helbide elektronikora bidali eta eskatutakoaren erantzuna posta elektronikoaren bidez jasoko duzu.

**EGIN ZURE ESKAERA**
**94 415 22 52**
**gehi@getxo.net**



# MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu dituzu aukeran. Tamaina eta posizioa ere aukeran, DIN A3, DIN A4, DIN A5, bertikalean, horizontalean…

Eskatutako testua zeuk ekarritako paperean, edo orri zuri batean ere maketatu ahal izango duzu.



erref. K 01



erref. K 02



erref. K 03



erref. K 04



erref. K 05



erref. K 06



erref. K 07



erref. K 08



erref. K 09



erref. K 10




# "DENDAKETAN" EUSKARA IKASTAROAK

"DENDAKETAN" ikastaroak bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak dira, astean bi egunetan Getxoko dendari eta ostalarientzat.

# EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Getxoko merkataritza eta ostalaritza sektoreetako saltokietako jabeek eta langileek euskara ikasteko eskoletara joateko diru-laguntza jasoko dute. Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen % 100 itzuliko dio.

## BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Getxoko establezimendu batean lan egitea.
Gutxieneko bertaratzea: %85

**EGIN ZURE ESKAERA**
94 415 22 52
gehi@getxo.net

# ZEIN MATERIAL BEHAR DUZU?

Material sorta interesgarria dugu zuretzat. Euskaraz edo ele bietan eta DOAN.

**1.** "Zabalik/Itxita"




**2.** "Merkealdia"




**3.** "Eskaintza bereziak"




**4.** "Erreklamazio-orriak eskuragarri"




**5.** "Gabonetako loteria"




**6.** "Udako ordutegia"




**7.** "Oporretan gaude"




**8.** Inprimakiak (fakturak, ordainagiriak…)




# EUSKARA BIZI

Zure saltokian bezeroei arreta euskaraz emateko aukera baduzula adierazi nahi baduzu, baditugu **HEMEN ERE EUSKARA BIZI** leloa duten mahai-gainekoak, kartelak…




# HIZKUNTZA-AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

**EUSKARA MERKATARITZARA** programak eskaintzen dituen zerbitzuen eta laguntzen gaineko argibide gehiago jaso nahi baduzu, deitu edo idatzi eta zurekin bilduko gara zure dendan bertan.

**TEL. 94 415 22 52** / **e-mail. gehi@getxo.net**

## EGIN ZURE ESKAERA

**94 415 22 52**

**gehi@getxo.net**


**Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei**
**Asesoría lingüística al comercio getxotarra**

**TEL.** 94 415 22 52
**e-mail.** gehi@getxo.net

**Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua**
**Servicio de Euskera del Ayto. de Getxo**

**TEL.** 94 466 00 10/11
**e-mail.** euskara.zerbitzua@getxo.net
**web.** www.getxo.net